

SAN TELMO MUSEOAN ESKAINIKO DEN INFORMAZIORAKO ETA ERRESERBAK KUDEATZEKO ZERBITZUA, JARDUERAK ETA BESTELAKO ZERBITZUAK, DINAMIZAZIO-ZERBITZUA BARNE, KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN ORRIA

1. XEDEA

Lizitazio honen xedea da batetik, San Telmo Museoak kudeatzen dituen erakusketetarako bisiten (gidatuak edo ez), jardueren eta museoak eskaintzen dituen bestelako zerbitzuen informazio-zerbitzua kontratatzea, eta hala dagokionean, baita horien erreserba egitea ere. Bestetik, 4.2 Klausulan zerrendatu erakusketa horien bisita gidatu edo jarduera horien dinamizazio-lanak kontratatzea. Hori guztia, Orri honetan eta Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orrian adierazitakoaren arabera.

Aipatu informazio, erreserba eta dinamizazio zerbitzuak eskaintzeaz gain, eta kontratu honen barruan, SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasuna bermatu nahi du. Horretarako, kontratistak familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak ahalbidetuko dizkie kontratuaren gauzatzeari atxikiko langileei.

Era berean, Kontratua sinatu eta gero ager daitezkeen beharrak direla medio SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k, hala baderitzo, Orri honen **8.1 Klausulan** zehaztu informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzuko ordutegia handitzea eska diezaioke kontratistari. Horrela bada, enpresa kontratistak prezio zehatza ezarriko dio, halaber, informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzuaren ordu bakoitzari. Aipatua kalkulatzeko enpresa kontratistak informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzua emateko eskaini zuen urteko prezioa 1043z zatituko da. Horrek ez dio konpromisorik ekarriko SAN TELMO MUSEOARI, informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzuaren ordutegia handitzeko enpresa kontratistari egin dion eskaerari dagokionean. Nolanahi ere, SAN TELMO MUSEOAK enpresa kontratistari egin dion eskaeraren guztizko kopuruak ezingo du kontratuari esleitu balioaren % 20a gainditu.

2. FILOSOFIA OROKORRA

San Telmo Museoa, museoa ez ezik, jakintza zabaltzeko eta pentsamendua sortzeko gunea ere bada eta iraganeko jakintzatik abiatuta oraina ulertzeko eta etorkizuna eraikitzeko tresna izan nahi du. Hedapen-lan horretarako, SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k erakusketa iraunkorra, aldi baterakoak eta hainbat jarduera zein ekitaldi antolatzen ditu, artea, historia eta gizarte garaikideari buruzkoak, besteak beste.

Ekimen horien bitartez eta metodologia egoki batekin, SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k ondarearen ulermena eta gozamena bideratzen ditu. Eta hori guztia, bisitariaren interesei eta beharrei erantzuteko asmoz.

Horrela, SAN TELMO MUSEOA, S.A., Orri honen **6.2 Klausulak** dioenari jarraiki, eskaintzen dituen programak eta beraien helburuak diseinatzeaz arduratuko da, baita horiek gauzatzeko metodologiak.

3. ZERBITZUEN KOORDINAZIOA

Enpresa esleipendunak Koordinatzaile bat izendatuko du. Bere azken ardura kontratu honen xede diren zerbitzuen gauzatea bermatzea izango da. Horrela, zerbitzu egokia eskaintzen dela ziurtatuko du eta SAN TELMO MUSEOA, S.A.-rekiko solaskidea izango da. Koordinatzaileak eginkizun profesional hori bete ahal izateko nahikoa gaitasun izango du.

Koordinatzaileak zerbitzua eskaini bitartean sortzen diren gorabeherak bideratuko ditu.

SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k betebeharren inguruko informazioa denboraz helaraziko dio Koordinatzaileari. Horrela, Koordinatzaileak eginkizun bakoitza nork beteko duen jakinaraziko dio SAN TELMO MUSEOA, S.A.-ri, dagokion epean.

Koordinatzaileak, eta San Telmo Museoaren lanorduetan, berarekin harremanetan jarri ahal izateko telefono mugikorra piztuta izango du. Telefono hori eskuratzea enpresa esleipendunaren ardura izango da.

4. ZERBITZUAREN HELBURUAK ETA DEFINIZIOA

Enpresa esleipendunak kalitatezko zerbitzu bat eskaini beharko du.

Horretarako, honakoak ziurtatuko ditu: zerbitzura atxikitako langileen profesionaltasuna, eskaini beharreko hizkuntza guztietan, San Telmo Museoak lantzen dituen gaietan langileek duten prestakuntza, orientazio didaktikoa eta ordutegia.

4.1.- Informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzua bideratzea

Enpresa esleipendunak bisita (gidatuak ala ez), tailer eta SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k kudeatuko dituen erakusketen inguruko jardueri buruzko eta San Telmo Museoak eskaintzen dituen beste zerbitzuei (guneen alokairua, barne) buruzko informazio zerbitzua eskaini beharko du; eta horien guztien erreserbak kudeatu beharko ditu ere.

Erreserbak kudeatzeko zerbitzua SAN TELMO MUSEOA, S.A.-n ardura hori duen pertsonaren jarraibideei jarraiki egingo da; kontratistak halaberrez bete beharko ditu.

Informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzua webgunearen bitartez eskaintzeaz gain, e-postaz eta telefonoz ere eskainiko da.

Honela, aipatu informazio era erreserbak **4.2 Klausulan** zerrendatu programei dagozkie edo, bere kasuan, San Telmo Museoan eskainiko direnei.

Halaber, enpresa esleipendunak SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k eskaintzen dituen alokairu zerbitzuari eta bestelakoei buruzko informazioa eskaini eta erreserbak kudeatu beharko ditu, SAN TELMO MUSEOA, S.A.-n ardura hori duen pertsonaren jarraibideei jarraiki halabeharrez.

Enpresa esleipendunak SAN TELMO MUSEOA, S.A.-ri jakinaraziko dio uneoro zeregin horiek nork garatuko dituen (oporrak eta bestelakoak, barne).

Informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzua euskara, gaztelania, ingelesera eta frantsesez eskaini beharko da.

4.2.- Dinamizazio-zerbitzua bideratzea

Enpresa esleipendunak ziurtatuko du SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k kudeatzen dituen erakusketetarako bisita gidatuen, jardueren eta San Telmo Museoak eskaintzen dituen bestelako zerbitzuen dinamizazio-zerbitzua bideratuko duela.

Zehazki, dinamizazio-zerbitzuak ondokoak hartuko ditu:

- Bisita gidatuak, San Telmo Museora edo aldi baterako erakusketetara.
- Bisita gidatu-tailerrak, San Telmo Museora edo aldi baterako erakusketetara.
- Aurrekoen antzekoak diren jarduerak, besteak beste: ondarea ezagutzeko ibilbideak, ibilbide historikoak, artistikoak, etab. Aipatu jarduerak San Telmo Museoan zein museotik at izan daitezke.
- Erreserbarik ez duten bisita gidatu programatuak, San Telmo Museora edo aldi baterako erakusketetara.
- Aldi baterako erakusketen bitartekaritza-lanak.

Enpresa esleipendunak aldi baterako erakusketetako bitartekaritza-zerbitzua eman beharko du, erakusketa bisitatzen duten pertsonen kezkak-galderak jaso eta hauek azalpenak emanaz ere. Azalpen horiek bisitarien galdera-erantzunen baitan osatzen joango dira.

Bitartekaritza-lanak aldi baterako erakusketaren baitan edota SAN TELMO MUSEOAREN beharren arabera zehaztuko dira.

Horrela, dinamizazio-lan horren barne izango da egindako lanaren balorazioa jasotzea eta egitea.

San Telmo Museoko eskaintza didaktikoaren barruan burutzen diren bisita gidatuak eta bisita-tailerrak maila hauetara daude bideratuta: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Helduak.

SAN TELMO MUSEOA, S.A.-ko langile teknikoek diseinatuko dituzte bisita gidatu, jarduera eta dinamizazio-lanen programak.

Gutxienez 8 pertsonaz eta gehienez ere 25 pertsonaz osatutako taldeentzat diseinatuko dira. Hala ere, gerta daiteke programaren baten edota talderen baten

ezaugarriak aldatzea. Kasu horretan, SAN TELMO MUSEOA, S.A.-ko langile teknikoek jakinarazi egingo dute.

Hona hemen, adibide gisa, San Telmo Museoa egun eskaintzen diren programa didaktikoen izenburua, iraupena eta deskribapena:

Programa	Iraupena	Deskribapena
Bisita gidatuak		
Paseoan Museoan barrena	60 min.	Museoan barrenako ibilbide arina objektu ezberdinen bitartez museoko bildumak ezagutzeko
Kalejira I	90 min.	Ibilbide bat Donostiako Alde Zaharrean barrena
Kalejira II	120 min.	Ibilbide bat Donostiako Zabaltzan barrena
Emakumeen kalejira	90 min.	Emakume donostiarrek egindako ekarpen historikoa agerrarazteko ibilbidea
Museo bat, hamaika kontu I	90 min.	Ibilbide orokorra
Museo bat, hamaika kontu II	90 min.	Ibilbide orokorra II
Aztarnak oroimenean	90 min.	Ibilbide orokorra historiaurretik garai modernoan atariraino, euskal gizartea denboran zehar ezagutzeko
Atzokoa gaur	90 min.	Historiaren ibilbide orokorra, XXI. mendeko ikuspegitik
Modernitatearen hasiera	90 min.	Gaur egungo gizartearen zantzu nagusiak ezagutzeko ibilbide orokorra
Bertakoa eta Unibertsala	90 min.	Gainbegiratua mundu garaikideari, erakustareto iraunkorretan barrena
Badugu, badago	90 min.	Euskara, haren historia eta euskal hiztunak hobeto ulertzeko ibilbidea
Zatoz zugana	90 min.	Ibilbide orokorra erakustareto iraunkorretan barrena
Bisita gidatu + tailerrak		
Alakiketan	90 min.	Mundu tradizionalaren deskubrimendua musikaren bidez
Xoxo beltza	90 min.	Hurbilpena heriotzaren fenomenora errituen bidez
Chillidarekin dantzan	90 min.	Eduardo Chillida eskultorea eta bere obra ezagutzeko proposamen didaktikoa
Artearekin jolasean, Kolorea	90 min.	Tailer ludiko-didaktikoa, haurrak artearen mundurantz gerturatu daitezzen Arte Ederretako bildumatik abiatuta
Artearekin jolasean, Oteiza eta Chillida	90 min.	Oteizaren eta Chillidaren obra ezagutzeko proposamena, bere bizitza eta lan artistikoa lotuz
Artearekin jolasean, Nikolasen ametsak	90 min.	Nikolas Lekuonaren obra ezagutzeko, bereziki, berak erabilitako collage teknikan sakonduz, bere lan egiteko modura eta surrealismora inguratzea
Baserria	90 min.	Landa-eremuko bizitzara egindako hurbilpena

SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k eskaintzen dituen programetan aldaketak gerta daitezke, hau da, programak kendu, aldatu edo berriak gehitu daitezke, SAN TELMO MUSEOA, S.A.-ren beharren arabera.

Bisita gidatuen eta jarduera didaktikoen dinamizazio-zerbitzua gauzatzeko, enpresa esleipendunak jarriko ditu jarduera bakoitzerako egokiak diren hezitzaileak eta gidak, eta horretarako, kontuan hartuko du publikoaren tipologia, adina, hizkuntza eta beste edozein ezaugarri edo behar berezi, jarduerak behar den bezala funtziona dezan.

SAN TELMO MUSEOA, S.A.-ko langile teknikoek eskainiko dute zerbitzua gauzatzeko beharrezkoa den prestakuntza. Horrez gain, SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k, egokitzat jotzen badu, informazio-bilerak eta prestakuntza-saioak egingo dira, enpresa esleipendunaren langileek erakusketak, hezkuntza-programak eta irizpide didaktikoak ezagutu ditzaten.

Egoera berezietan; gaia, espezializazioa edo berezitasuna dela-eta jardueraren xede diren hartzaileak edo eman nahi den zerbitzuaren ezaugarriak horrelakoa egitea eskatzen dutenean, SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k kontratu honen xede diren zerbitzuak espezializatutako hirugarrenekin osotasunean edo partzialki kontratatzeko aukera izango du. Aipatu erabakia SAN TELMO MUSEOA, S.A.-ri dagokio soilik eta honek enpresa kontratistari jakinaraziko dio.

5. GIZA BALIABIDEAK

5.1.- Profilak

Klausula Ekonomiko Administrazioen Orrian adierazitakoaren arabera, hauek dira eskatuko diren gutxienezko profilak:

- Klausula Ekonomiko Administrazioen Orriko **12. Klausulari** jarraiki lizitatzailerak kontratuaren exekuzioari atxikiko dizkioten bost lagunetatik hiruk, gutxienez, 15 saioko eskarmentu frogatua izan beharko dute azken hiru urteotan (2012, 2013, 2014). Kontratu honen xede diren antzeko jarduerak dira aipatu saioak (hau da, bisita gidatuak, jarduera didaktikoak eta dinamizazio museo edo kultur zentroetan).

Horrela, gaitasun didaktikoez gain komunikazio eta publikoarekiko tratu atsegina izateko gaitasuna izango dute taldeko bost kideek.

- Klausula Ekonomiko Administrazioen Orriko **12. Klausulari** jarraiki lizitatzailerak kontratuaren exekuzioari atxikiko dizkioten bost lagunetatik bat informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzuaren arduraduna izango da.

Aipatua informazioa eta arreta euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez emateko gai izango da.

- Klausula Ekonomiko Administrazioen Orriko **12. Klausulari** jarraiki lizitatzailerak kontratuaren exekuzioari atxikiko dizkioten bost lagunen profil profesionalek Arte, Gizarte Zientziak, Turismo eta Animazio Soziokulturalaren arloetara lotuta egon beharko dute.

Taldeko bi kide, gutxienez, graduatuak edo lizentziatuak izango dira.

- Klausula Ekonomiko Administrazioen Orriko **12. Klausulari** jarraiki lizitatzailerak kontratuaren exekuzioari atxikiko dizkioten bost lagunek euskaraz zein gaztelaniaz lan egiteko gaitasuna izan beharko dute.
- Enpresa esleipendunak euskaraz edo gaztelaniaz aldibereko lau bisita eta frantsesez eta/edo ingelesez bi bisita egiteko aukera ziurtatuko du.

- Klausula honetan ezarritako hizkuntza-gaitasunari buruzko baldintzei dagokienean:
 - Euskarari dagokionez, 3. HE (Administrazioko langileentzat), HABE 3, EGA edo baliokidea izan beharko dute (SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k erabakitzen duen moduan frogatu beharko dena).
 - Ingelesari dagokionez, English Cambridgeko First Certificate maila edo baliokidea izan beharko dute (SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k erabakitzen duen moduan frogatu beharko dena).
 - Frantsesari dagokionez, DELF, B2 edo maila baliokidea izan beharko dute (SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k erabakitzen duen moduan frogatu beharko dena).

5.2.- Koordinatzailea

Klausula Ekonomiko Administratiboen Orriko **21. Klausulari** jarraiki, enpresa kontratistak Koordinatzaile bat izendatu beharko du.

Koordinatzailea Klausula Ekonomiko Administratiboen Orriko **12. Klausulari** jarraiki lizitatzaileek kontratuaren exekuzioari atxikiko dizkioten bost lagunetako bat izan daiteke, edo ez.

Koordinatzaileak, gutxienez, 3 urteko esperientzia (2012, 2013, 2014) edukiko du kontratuaren xede diren jardueren koordinazioan (bisita gidatuak, jarduera didaktikoak eta dinamizazioa museo edota kultura-guneetan).

6. ENPRESA ESLEIPENDUNAREN ESKURA JARRITAKO BITARTEKOAK

SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k museoan bertan enpresaren eskura utziko ditu informazio, erreserba eta dinamizazio lanetarako beharrezkoak diren bitarteko teknikoak, besteak beste: telefona, ordenagailu finkoa, informazioa eta material didaktikoak. Halaber, SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k erreserbak kudeatu eta beren inguruko datuak biltzeko informatika-programa (egun, EUROMUS programa) eta zerbitzua bideratzeko Museoak egokia deritzon ekipamendua enpresaren eskura utziko du.

Azken eraginetarako espresuki jaso beharra dago (i) SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k bere ustiapena baimentzen duten eskubide nahikoak dituela aipatu informatika-programaren gainean; eta (ii) Orri honek xedatzen duen kontratazioaren xede diren zerbitzuen esleipenak eta/edo gauzatzeak ez dakarrela, inolaz ere, aipatu informatika-programa ustiatu ahal izateko eskubiderik enpresa esleipendunaren alde. Horrek zerbitzua gauzatzeko beharrezkoa den heinean erabiltzeko aukera izango du, betiere kontratua indarrean dagoen bitartean.

7. ZEREGIN ZEHATZAK

7.1.- Informazioa eta erreserbak kudeatzea

- San Telmo Museoak eskaintzen dituen bisiten (gidatu ala ez), jardueren eta bestelako zerbitzuen, alokairuak barne, informazio-eskaerei erantzutea webgune bidez, posta elektronikoz edo arreta telefonikoa eskainiaz.
- Bisita gidatu, jardueren eta bestelako zerbitzuen hitzorduak adostea eta erreserbak egitea, aurrekontuak, barne.
- Bisita gidatu, bisita gidatu-tailer, jarduera eta bestelako zerbitzuen ordutegia kontrolatzea eta koordinatzea.
- Erreserbatutako jarduerak jakinaraztea, astean behin, SAN TELMO MUSEOA, S.A.-ri. Eta SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k zehaztu bitarteko eta ereduak erabiltzea horretarako.

7.2.- Dinamizazio-zerbitzua bideratzea

- SAN TELMO MUSEOA, S.A.-ko langile teknikoek hala eskatutakoan, eskaintza didaktikoa diseinatzen eta garatzen laguntzea.
- Jarduera garatzeko beharrezkoa den materiala aldeztu aurretik prestatzea, kontrolaz arduratzea eta bukaeran jasotzea.
- Taldeari harrera egitea eta jarduera aurkeztea San Telmo Museoaren sarreran, baita taldearen portaera kontrolatzea ere.
- Erakusketako artelanak zaintzea, San Telmo Museoko segurtasun-arduradunekin batera, jarduera garatzen den bitartean.
- Taldeari irteerara laguntzea, eta haur-jardueren kasuan, haur guztiak pertsona heldu batekin doazela ziurtatzea.
- Bisita eta tailerren balorazioa jaso eta kudeatzea, ondoko **7.3 Klausulak** dioenarekin bat.
- Garatutako jardueren memoria egitea.

7.3.- Egindako lanaren balorazioa

- Alde batetik, enpresa esleipendunak bisitariak dinamizazio-zerbitzuari buruz egiten duten balorazioa jasoko du. Horretarako, SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k bitarteko tekniko eta material guztiak bere eskura utziko ditu.
- Bestetik, enpresa esleipendunak urteko memoria aurkeztuko dio SAN TELMO MUSEOA, S.A.-ri. Memoriak ondoko datuak hartu beharko ditu, gutxienez:
 - Bisitari kopurua eta ezaugarriak, banaketa: jatorria/ tipologia/ adin-taldea / eskola-maila / programa mota edo jarduera mota / sexua / hizkuntza/ ezaugarri bereziak.
 - Bisita gidatuen eta tailerren kopurua.

- Bisita programatuen kopurua.
- Jardueretan parte hartu duten pertsonen egindako balorazioak.
- Bisitari-talde berriak erakartzeko proposamenak.
- Eskainitako zerbitzuan izan daitezkeen aldaketak.
- SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k eska dezakeen beste edozein datu.

Era berean, enpresa esleipendunak hileroko parte bat entregatuko dio SAN TELMO MUSEOA, S.A.-ri. Aipatu parteak, arestian aipatu datuez gain, zerbitzu motaren zehaztapena, zerbitzuaren egun kopurua eta ordu kopurua, jarduera egin duen pertsonaren izena eta abizenak, eta izandako gorabeherak eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko egokitzat jotzen diren gomendioak zehaztuko ditu.

Enpresa esleipendunak SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k adierazitako bitartekoak eta ereduak erabiliko ditu urteko memoria eta hileroko parteak aurkezteko.

8. ORDUTEGIAK

8.1.- Informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzua

Informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzua astelehenetik ostiralera eskainiko da, 10:00etatik 14:00etara, jai-egunetan izan ezik, urte osoan zehar. SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k, baina, beharren arabera ordutegi hori aldatzea erabaki dezake.

Klausula Ekonomiko Administrazioen Orriko **1., 7. eta 26. klausulek** diotenarekin bat, SAN TELMO MUSEOA S.A.-K, kontratu hau sinatu ostean agertu beharrei erantzuteko, eta egoki baderitzo, aurreko paragrafoan zehaztu informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzuaren ordutegia handitzea eska diezaioke enpresa kontratistari. Horrela bada, enpresa kontratista informaziorako eta erreserbak kudeatzeko zerbitzuaren ordutegia handitzera behartuta egongo da, aipatu Klausula Ekonomiko Administrazioen Orriko **1., 7. eta 26. klausulek** diotenarekin bat.

8.2.- Dinamizazio-zerbitzua

- Ohar hau loteslea ez bada ere, jakinarazi nahi dugu urtean aldi baterako bi erakusketetan aurreikusten dugula bitartekaritza-zerbitzua eskaini behar izatea asteartetik igandera, egunean bost orduz (SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k zehaztuko du ordutegia).

Klausula Ekonomiko Administrazioen Orriko **1., 7. eta 26. klausulek** diotenarekin bat, SAN TELMO MUSEOA S.A.-k, kontratu hau sinatu ostean agertu beharrei erantzuteko, eta egoki baderitzo, aurreko paragrafoan zehaztu bitartekaritza-zerbitzuaren ordutegia handitzea eska diezaioke enpresa kontratistari. Horrela bada, enpresa kontratista bitartekaritza-zerbitzuaren ordutegia handitzera behartuta egongo da, aipatu Klausula Ekonomiko Administrazioen **Orriko 1., 7. eta 26. klausulek** diotenarekin bat.

- Dinamizazio-zerbitzua (bitartekaritza-zerbitzua salbu) egindako erreserben arabera eskainiko da.


Bisita, tailer eta jarduera didaktikoen egutegia eta ordutegia bat etorriko dira, normalean, Museoaren ordutegiarekin, hau da, 10:00etatik 20:00etara izango dira, asteartetik igandera, urte osoan zehar. Halaber, salbuespenezko kasuetan, aipatu zerbitzua Museoaren ordutegitik kanpo eskaini beharko da, ondoko paragrafoan xedatuari jarraiki.

Salbuespenezko zenbait kasutan, San Telmo Museoaren jendaurreko ordutegiaren barruan, edo ordutegitik kanpo, SAN TELMO MUSEOA, S.A.-k enpresa esleipendunari eska dakioke gida gehiago jartzeko, beharrezkoa dela uste badu; eta beharrezkoa den guztietan, baita ordutegia zabaltzea ere bere beharren arabera. Zerbitzu horien prezioa Klausula Ekonomiko Administrazioaren Orriko **7. Klausulari** jarraiki ezarriko da.

Donostian, 2015eko urriaren 8an

Jaime Otamendi Muñagorri

Kudeatzailea


donostiakultura.com
Otamendi
San Telmo Museoa, S.A.

